

EKACHA.

(TRADUCCION LIBRE DE «LA TEMPESTAD», DEL SR. ZORRILLA).

¿Zér nai dabe uts urdiñ argi iraztekoan

Odeyok pillaturik asarrez gaur ala?

Egiñik Burzerua¹ onenean estaldu

Burrukarako legez gertetan dirala?

¿Ze zanek arrastaka daroaz osartean?²

¿Ze indar eskutukok deutse bultzatuten?

Zeru sakon zelayak argitzalla bagarik,

Zearka ibilliaz dabezala isten?

¡Ze bizkor, ze agudo direan metatuten!

Banandu alkargandik baita bereala,

Izar-erria dana osoro illundurik,

Urdin pozgarrizkoan ipinirik gaba.

Mendien gañetatik laban³ labanka doaz,

Ichas orroetsuruntz astiro išillik,

Illunpez upaturik zero alderdi biak,

Lurra euren barruan zarratu egiñik.

Iges iges badoa, igesi Illargia:

Iges iges izarrak doaz ezkutetan:

Agintzen osartean odehyak utsik dabe,

Izar-erririk oztaz dogu begiztetan.

Alperrik nekatuko gara ikuste arren,

(1) Burzerua=el zenit.—(2) osartea=los espacios.—(3) labanka=irristan.

Eun baltz izugarriak gorde dauz atzean,
 Zeinbat nekatuago zulatuten begiok,
 Ainbat jarriten jakuz odehyak aurrean.

Eurok bakar bakarrik geroago geiago,
 Mundu lo dagonari datorkaz gañera,
 Berau bere bidean doian ots bakochean,
 Besteak inguruak doakoz artzera.

Menditzar aiñ eskergak inguratuten dabe,
 Oñeztuen argiak engañaute gaukez,
 Garrezko okagillak batzuk dirudie, ta
 Besteak egoduntzat bere bota leikez.

Beste batzuk esan lei piñudiak dirala,
 Desbardilñak dituez kopa ta kanpuak,
 Koloreak beingoan barriak aldaturik,
 Dabiltzaz aruntz onuntz ezin geldituak.

¿Ze besok, ze megopek bultza ta zuzentzen dauz?
 ¿Nok euren errayetan diardu berbetan,
 Urrumaka doiala osti¹ burrundaria,
 Trujua² euren barrutik baita arinketan?

Ausaz danen erditik Egilla altsua doa,
 Lurraren ertz bazterrai begiratutera,
 Ete doian mundua oñetatik galdurik,
 Aurkitzen dan lekutik alde egitera.

Edo doakon nago burdiaren ondoren
 Cherren zital erkiña jarten illunpean,
 Metaturik odehyak aren gloriaren ta
 Beronen zorigach ta illturen artean.

Benturaz euretatik ¿ete da bat edo bat
 Kerizpetu ebana Sinaiko mendaia,
 Ezkutapen gartsuak argitzen ebanean
 Bertara igo eban igarla andia?

Edo ausaz ete da euren artekoren bat
 Sodomara ebana sugarra isuri,
 Edo ichasoetan mundua ondatzeko
 Urjol izugarria ebana iruntsi?

Izarriturik gabak urriñetatik diñost,

(1) ostia=trueno.—(2) Trujua=ekacha.

«Ara an zure Jauna, an ezkutau jatzu,»
 Gau odeitsua barriz deiez deiez dagokit,
 «Jaungoikoa urrera orainche datortzu,»
 Bazatozkit jo, jauna! zure mantuko orlok
 Suzko odoi artean ditut begiztetan,
 Chimistaka zeruan zearka zoazala
 Arpegi chit dontsua deutsut ezauketan,
 Dazaut zure kerizpe doiiana kolortzaka,
 Igerian odehyak dabiltzala pillak,
 Dazaudaz lurrun ketsu ugarien erdian,
 Danielen amesak ta mamu zurbillak.
 Dazaudaz zure oñatz eziñ nik ikusiak,
 Ostien amorruzko orroien artean,
 Zure burdiko chinpart biziak chimistetan,
 Dazautsut arnasea Akilon aisean.
 ¡Zelan, zelan aurrean, apurtuaz airea
 Arista bat bakarrik aurkeatuten jatzu,
 Begiok bozuz egun, atsa bozu sortitza,
 Urdintza kerizpe ta betikotasun Zu?
 Bazaudaz jo, fauna! nik, adorau gura zaitut,
 Espirituaz auspez nagotzu oñetan,
 Miña dot mutu zerren ez daben adietan,
 Jeobagana eltzen diran kantuetan.
 Uso ibar zaieak, urruok ekatzuez,
 Surrumurru samurra baita iturriak,
 Baso berdeak zeuen murmullucho gozoa,
 Jaunari kantetako batera gloriak.
 Zuen otza baletor oraiñ nire arpara,
 Berotzen banau Jauna zure espirituak,
 Igarlearen suaz biotz au gorituta,
 Nire kantak litzakez bardin bagakuak.
 Orrichoena baño eztiaigo litzakez,
 Alperrik Aprillean arena da gozo,
 Fenisiari atz emon egingo leuskioe,
 Errechiñola lotsaz leukee gorrituko.
 Kantu aiñ eregiak urrin ichiko leuke,
 Eremu luzeetako korront ots apatza,¹

(1) apatza=afable.

Baita baletor bere chirringolan¹ chirrinkaz,²
Irrintzaka irradan³ ichas truju latza.

Lira onegaz baña makurtu bear dot nik,
Odeyez apaindurik zakustazanean,
Illten jat eztarrian bozau indarrik baga,
Oñeztuka zeruan Zu zoazanean.

Azken bagako zure espirituua doa,
Begi leusotuok naiz ondo ez ezautu,
Arima onek zurturik jarririk belauniko
Odeyen kolkoetan adoretan zaitu.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1887.^{ko} Mayatzeko illean.



(1) chirringolan=rodando. (2) chirrinka=rueda. (3) irradan=corriendo.